



## ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN BIZI-KALITATEA

### DIMENTSIOA: PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK

Hausnarketarako galdera hauek proposatzen dizkizugu... animatzen zara?

**Ikertzeko puntuak: zer dira pertsonen arteko harremanak?**

Denok jarri behar gara beste pertonekin harremanetan; hala nola, lagunak, familiakoak, lankideak, auzokoak edo laguntzako pertsonak. Badauzkat gustuko lagunak. Nire inguruan dagoen jendearekin ondo moldatzen naiz.

Pertsonen artean ditudan harremanak nolakoak diren aztertzeko, honako hau izaten dut kontutan:

- Pertsona desberdinekin jartzen naiz harremanetan.
- Pertsona desberdinak bisitatzen ditut edo beraien bisitak izaten ditut.
- Lagun-minak dauzkat.
- Nire familiakoekin harremanetan nago.
- Jendearekin egotea gustatzen zait.
- Jende berria ezagutzea gustatzen zait, lagun berriak egitea.
- Bikotekidea daukat.
- Sexu-harremanak dauzkat.





### **Nire tokian jartzeko galderak: zer pentsatu eta sentitzen dugu adimen urritasuna dugun pertsonok?**

“Nire lagunekin beste bat naiz. Nire lagunen arteko batzuk ez dute adimen urritasunik eta beste batzuk, tailerrekoak, bai. Nire lagunek ondo ulertzen naute, beraiekin hazi naiz eta elkarrekin abentura asko bizi izan ditugu.”

“Nire lagunekin zerbait hartzen egotea gustatzen zait. Nirekin jatorrak dira eta ni ere beraiekin; estimatzen naute, denetan daude nire alde.”

### **Hausnarketarako galderak: Zer uste duzu? Zer sentitzen duzu?**

Denok dakigu zer den harreman batean ondo sentitzea. Eta badakigu zein beharrezkoak, garrantzitsuak eta indartsuak diren harreman hauek gu pertsona gisa hazteko. Galdetuko bagenizue zein motatako harremanek txiki sentiarazten zaituzteten eta zein motatakoek handi... zer erantzungo zenukete?



### **Elkarbanatzeko galderak: zer pentsatzen dute beste pertsonak? Zer sentitzen dute?**

Joserra Landarroitajaureguik, psikologo eta sexologoa eta Biko Arloak (Bilbao) Bulegoko zuzendarikideak eskarmentu zabala dauka adimen urritasuna duten pertsonak laguntzen eta beraien bitartekari izaten. Hau da pertsonen arteko harremanen eta hauen garrantziari buruz ematen digun hausnarketa:

“Adimen-mugak dauzkaten pertsonak (eta denok dauzkagu edo izango ditugu bat edo beste) abstraktua denarekin aritzeko edo ikasteko zailtasunak izaten dituzte baina ez daude ezinduek interakzio, emozio edota sentsazioetarako. Hau honela, norbera bere modura, elkarbizitzarako oso kapazak izaten dira, baita laguntasunerako, altruismo-rako, elkarlanerako, baikortasunerako... Hau da, maitasunerako, umorerako, alaitasunerako, gozamenerako, ilusiorako... Honez gain, nahiz eta askotan ez aipatu, atrakzioa sentitzeko kapazak dira eta baita erakargarriak direla sentitzeko ere, “desiatzaileak” izan ahal dira, desiragarriak eta desiratuak, maitemindu dezakete eta daitezke, plazera sentitu eta eman ahal dute, laguntasuna eskatu edo eman ahal dute, bikotekidea bilatu eta lortu ahal dute. Eta – batez ere, laguntza ematen bazaie- epe luzeetan irautea lortu ahal dute ere (guzti horrek suposatzen duen guztiarekin, dena ez baita zorientasuna).



Horregatik, beraien bizitzaren beste esparruetan bezalaxe, laguntzen saiatzen gara integrazio eta normalkuntzaren heziketa-printzipioak oso kontutan izaten. Hau da, munduan tokia egitea beraiek diren bezalaxe integra daitezen; den bezalako munduan sartzeko prestatzea”.

**Zeure ondorioak:**

A large rectangular area with a green border and rounded corners, containing horizontal dotted lines for writing.